



2025ko ekaina

Gaintzaren Biribilketa 2025.

Beste urteetan bezala, Iruñeko Udalak uztailaren seian txistulariok udaletxearen atarira sar gaitezen baimenak eman behar dizkigu.

Udalak, Musika bandarako 12 baimen ematen ditu eta beste 50 txistularion artean banatzeko.

Baimenak, bai irakaskuntzan nola beste jardueretan aktibitatea duten txistulari eta Txistu erakundeen artean banatuko dira, hori izango da irizpidea.

1. 39 baimen "Pablo Sarasate" kontserbatorioko goi-mailako eta maila profesionaleko ikasleentzat, "Joaquin Maya" Musika eskolako ikasleentzat, Erraldoi eta kilikien konpartsako kideentzat eta "Duguna" dantza taldeko adiskideentzat izango dira.
2. Gainerako 11ak, bai Gaintzaren biribilketan nola Txistua bizirik mantentzeko bestelako aktibitateetan, lanetan eta kolaborazioetan beti parte hartu dutenen artean banatuko dira, hots, "historikotzat" jotzen direnen artean.

"Baldintza" osagarri gisa Iruñekoa izatea kontuan hartuko da.

Datorren ekainaren 16an baimena lortu duzuenoi irizpide hauen arabera emandako baimenen zerrenda igorriko zaizue. Baimena lortzen ez dutenek, itxoin-zerrendan agertzeko izena eman ahal izango dute.

Udaletxeari baimen gehiago eskatu badiogu ere, ez dizkigu eskaini toki arazoak argudiatuz.

Eztabaidetan sartu gabe, ez dela errealia deritzogu. Gaur egun ez dago edukiera arazorik. Aurtengo ekainaren 9an berriro ere baimen gehiago emateko eskaera egin genuen.

Etorkizunean, aipatu ditugun entitateei baimenak Udaletxeak berak zuzenean eta eskubidez banatzea nahi dugu, txistuari agerpen publikoa eta jende gazte eta aktiboaren presentzia bermatzea helburu.

Hain une hunkigarria den Gaintzaren biribilketa jotzearen antolaketa eta baimenen banaketa gai honen atal txiki bat baino ez da, oraindik lortzeko duguna Gaintzaren Biribilketa kalean jotzea da, udaletxearen ataritik ateratzea. Hiriak entzun dezan Sanferminetan lehenengo musika txistulariok eta "Pamplonesa" k jota.

Eskerrik asko ulertzeagatik.